


# Vitoria-Gasteizerako nekazaritzako elikagai-estrategia jasangarri baten bidean

Parte hartzeko prozesua

Helburu estrategikoak identifikatzea

## LABURPEN-DOKUMENTUA



Bigarren eztabaida-tailerra

Debate-tailer presentziala non eta noiz egin den:

**Europa Jauregia  
Vitoria-Gasteiz**

2016ko martxoaren 15a, asteartea, eta 16a, asteazkena



Centro  
de Estudios Ambientales

CEA

Ingurugiro  
Gaietarako Ikastegia



## Tailerra antolatzeko talde tekniko arduraduna

### Diseinua eta koordinazio teknikoa:



*Carlos Verdaguer  
Isabela Velázquez*

### Tailerraren dinamizazioa eta bideratzea:



*Iciar Montejo  
Zorione Aierbe*

### Prozesuaren toki-koordinazioa:



Centro  
de Estudios Ambientales

CEA

Ingurugiro  
Gaietarako Ikastegia

María de Santiago  
Roberto González Argote



## Tailerrera bertaratu direnak

Alonso Andrés  
Arans López, Víctor  
Arbe Uxue  
Basabizi Taldea (Alvaro/Eber/Markos)  
Basterra Janire  
Calvo Liciaga Pedro  
Cantero Susana  
Chaves Javier  
de Santiago María  
del Canto, Arantza  
Escudero Juan Carlos  
Fernández Maite  
Fernandez Labastida, Ángel  
Galarza, Ane  
Goikoetxea Seminario Javier  
González Argote Roberto  
Gonzalez Sanchez, David  
Huguet, Amaia  
Ibarrondo Mónica  
Izar de la Fuente César  
Jalón Idoia  
Jausoro Sáenz de Cámara Jon  
Knörr Javier  
Lacuesta, Maite  
Lafuente, Ana  
Lauzurica Fernández de Labastida Patxi  
Lejarcegi, Xabier  
Marrero Xabier  
Mauleón Joserra  
Miguel Aitor  
Ocio Gurutze  
Ojembarrena, Bixen  
Pérez Bengoa Ana Isabel  
Ruiz Roberto  
Ruiz de Infante Jon  
Santiago Marcelino  
Uriarte Marian  
Vicente Yolanda  
Zabalgana Batuz



## ÍNDICE

<b>Helburu estrategikoak identifikatzea .....</b>	<b>9</b>
<b>1. Aurkezpena .....</b>	<b>9</b>
<b>2. Eztabaida-tailerra .....</b>	<b>9</b>
2.1. Tailerraren helburuak .....	9
2.2. Parte-hartzaileen kopurua eta profila .....	9
2.3. Metodologia eta tailerraren garapena.....	10
<b>3. Lehenengo lan-saioaren emaitzak: etorkizuneko egoerak.....</b>	<b>11</b>
3.1. 1.talde funtzionala: Nekazari eta abeltzainak .....	11
3.2. 2. talde funtzionala: Eraldatzaileak, banatzaileak eta saltzaileak.....	14
3.3. 3. talde funtzionala: Erabiltzaile eta kontsumitzaileak, elkarrekin kide direnak eta ez direnak.....	18
3.4. 4. talde funtzionala: Politikari eta teknikariak.....	20
<b>4. Bigarren lan-saioaren emaitzak: helburu orokorrak .....</b>	<b>26</b>
4.1. 1. talde tematikoa (1TT): Nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizpena .....	27
4.2. 2. talde tematikoa (2TT): Eraldaketa, banaketa eta merkaturatzea.....	30
4.3. 3. talde tematikoa (3TT): Elikadura-ohiturak eta kontsumoa.....	32
4.4. 4. talde tematikoa (4TT): Ingurumena eta nekazaritzako elikagaien metabolismoa .....	35
<b>5. Azken ondorioak: helburu estrategikoen zerrenda hierarkizatua .....</b>	<b>39</b>
5.1. Erabilitako metodologia.....	39
5.2. Boto gehien jaso zituzten bost proposamenak.....	40
5.3. Proposamenen bigarren multzoa:.....	41
5.4. Gainerako proposamenak.....	42





# Helburu estrategikoak identifikatzea

## 1. Aurkezpena

Martxoaren 15ean eta 16an, Vitoria-Gasteizko Nekazaritzako Elikagaien Estrategian parte hartzeko prozesuaren lehenengo faseari dagokion bigarren eztabaida-tailerreko bi lan-saioak izan ziren.

Otsailean izandako tailerrean aurretiatzko diagnostiko teknikoaren edukia baliozkotu eta kontrastatu zen, eta oraingo hau tailer haren jarraipena izan da; nekazaritzako elikagai-estrategia jasangarria denon artean eratzeko prozesuan aurrera egiteko balio izan du eta, hortaz, prozesuaren lehen zatia -hau da, erreferentziako esparru estrategikoa ezartzea- amaitutzat jo dezakegu.

## 2. Eztabaida-tailerra

### 2.1. Tailerraren helburuak

Tailerraren eginkizun nagusia nekazaritzako elikagai-estrategiaren helburu nagusiak identifikatzea zen, hau da, elikakatearen fase bakoitzerako helburu espezifikoak egituratzeko lehentasunezko ekintza-ildo nagusiak zeintzuk izango diren. Azken fasean, helburu espezifiko horietatik etorkizuneko Ekintza Planaren programak eta neurri zehatzak sortuko dira.

### 2.2. Parte-hartzaileen kopurua eta profila

Eztabaidako bi saioetan guztira 39 lagunek parte hartu zuten, eta horietatik 22 lagunek bi egunetan parte hartu zuten; lehenengo saioan 31 parte-hartzaile izan ziren, eta bigarrenean 30.

39 lagun horietatik, 29k lehendik ere parte hartu zuten otsailaren 23an eta 24an izandako lehenengo tailerreko bi saioetakoren batean; lehenengo tailer horretan dokumentua baliozkotu zen eta guztira 83 lagunek parte hartu zuten lehenengo fase horretako saioen batean.

Lehen eztabaida-tailerrean profilak oso heterogeneoak izan ziren, eta oraingoan ere horrelaxe izan zen. Lehen sektoreko ordezkarien presentziari dagokionez, aurreko deialdiaren antzeko mailari eutsi zaiola esan dezakegu, baina gainerako profil

funtzionalekin alderatuta, aurreko tailerlean baino garrantzi erlatibo handixeagoa izan dute.

### 2.3. Metodologia eta tailerraren garapena

Lehenengo saioaren hasieran, talde teknikoak baliozkotzeko eta kontrastatzeko lehenengo tailerraren ondorioak aurkeztu zituen, baita tailer horrekin loturik *online* egin zen inkestaren emaitzak ere.

Horren ondoren, parte-hartzaileak lau lantaldetan banatu ziren, profilaren arabera: **nekazari eta abeltzainak, merkatari eta banatzaileak, herritar eta kontsumitzaileak, eta politikari eta teknikariak**. Talde bakoitzari zera eskatu zitzaion, 2040. urtean Vitoria-Gasteizko nekazaritzako elikagai-sistemaren ikuspegi positibo bat eta negatibo bat irudikatzen.

Bigarren lan-saioa hurrengo egunean izan zen, eta etorkizuneko itxaropenen edo beldurren ikuspegi horietan oinarritu zen. Kasu honetan, parte-hartzaileak lau taldetan banatu ziren, bakoitzak bere gustuko gaia hautatuta: **nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizpena; banaketa eta merkaturatzea; elikadurako eta kontsumoko ohiturak; ingurumena eta nekazaritzako elikagaien metabolismoa**. Talde bakoitzak honako hau egin behar zuen: ikuspegi positiboa gauzatzea eta ikuspegi negatiboa saihestea ahalbidetuko duen estrategia bidera dezaketen bost helburu orokor adostu.

Bigarren jardunaldi hori amaitzeko, osoko bilkuran, lau taldeek identifikatutako helburuen zerrenda aurkeztu zen eta, horren ondoren, bozketa gurutzatuaren bitartez, zerrenda hori ordenatu egin zen, parte-hartzaile guztien lehentasunen arabera.

Dokumentu honetan, bigarren tailer horretako bi saioen emaitzak jaso ditugu. Emaitza horien osagarri, 2016ko apirilaren 10era arte zabalik egongo den bigarren *online* inkestaren emaitzak izango ditugu. Lehen ere esan dugunez, informazio hori guztia erreferentzia-esparrutzat hartuko da parte hartzeko prozesu honen bigarren faserako.

## 3. Lehenengo lan-saioaren emaitzak: etorkizuneko egoerak

Lehen lan-saio hau prospektibako ariketa kolektiboa izan da, nekazaritzako elikagaien estrategia bideratuko duen etorkizuneko irudia zehazten hasteko ariketa.

Horretarako, eta 2040. urtea izanik denbora-muga, profil funtzionalaren araberako lau lantaldeetan banatutako parte-hartzaileei etorkizun hori irudika zezaten eskatu zitzaie, baina bi egoeratan, hau da, espero duten etorkizunaren ezaugarriak eta beldur diren etorkizunaren ezaugarriak bereizita.

Irudikatzeko ariketa horretan, 'zer' garrantzitsuagoa izan da 'nola' baino; alegia, azken irudia garrantzitsuagoa zen irudi hori lortzeko bidea baino. Dena den, esan behar dugu zenbait kasutan ez dela erraza izan bereizketa hori egitea, eztabaidetan proposamenak egiteko joera izaten baita nagusi. Horregatik, lehen lanaio horren ondorio diren etorkizuneko ikuspegi horien tartean, berehalako ekintzetara bideratutako proposamenak ere aurkituko ditugu.

Hala ere, emaitzak argi eta garbi adierazten du zeintzuk diren nekazaritzako elikagaien katean inplikaturako sektore guzti-guztien nahiak eta kezkak, eta ongi betetzen du Vitoria-Gasteizek izan ditzakeen etorkizun posibleen dimentsio anitzeko irudia marrazten hasteko eginkizuna. Emaitza horretan, alde batetik, parte-hartzaileen artean adostutako alderdiak eta, bestetik, haien ikuspegi indibidualak bereizi nahi izan ditugu.

### 3.1. 1.talde funtzionala: Nekazari eta abeltzainak

**Bideratzailea:** *Iciar Montejo*

---

#### 2040rako ESPERO DEN EGOERA

**Adostutako ezaugarriak:**

---

- **Tokiko ekoizpen jasangarri eta ekologiko sendoa:**
  - Baserriak txikiak dira, mistoak (nekazaritza eta abeltzaintza) eta askotariko elikagaiak produzitzen dituzte.
  - Ekoizle kopurua laukoiztu egin da.
  - Sektorea eraldatu egin da: zereal-ekoizpena ez da hain nagusi.



- Produktu fitosanitarioen erabilera oso mugatuta dago eta, zenbait kasutan, baita debekatuta ere.
  - Errazagoa da lurak lortzea.
  - Lursailak deskontzentratzea sustatu da, 5 Ha-ko finkekin.
- **Landa-ingurune aberatsa eta biodibertsitate handikoa:**
  - Finka bakoitzean, azaleraren % 5, gutxienez, heskai eta zuhaitzietan dago.
- **Vitoria-Gasteizko landagunearen eta hirigunearen artean oreka handiagoa dago;** elkarri begiratzen eta errespetatzen diote.
  - Herrietako bizimodua erakargarria da eta landaguneari bizi diren herritarrak daude.
  - Sektorean belaunaldi-aldaketa gertatu da.
  - Nekazariak badaki elikagai-hornitzaile dela, eta gizarteak ere aintzatesten dio eginkizun hori.
- **Elikadura-kontzientzia handiagoa dago Vitoria-Gasteizen:**
  - Elikadura balioetsi egiten da.
  - Gizartean kezka dago ekoizpenaren eta ekoizpen-sektorearen inguruan.
  - Tokiko ekoizpenaren % 80 gertu kontsumitzen da, gehienez 100 km-ko ratio batean.
  - Auzoetako denda eta saltoki txikiak egonkorak dira.
  - Arabako ekoizleen merkatuak finkatuta daude.
- **Industria/erlaldaketa-zentro txikiak daude Vitoria-Gasteizen eta/edo Araban:**
  - Tokiko produktuak lurraldean bertan eraldatzen dira.
- **Nekazaritzan eta abeltzaintzan ingurumenaren aldagaia txertatu da:**
  - Etxeko hondakin organikoak konposta egiteko eta nekazaritzarako materia organikotzat erabiltzen dira.
  - Lurzoruak biziagoak daude: jakintza handiagoa da, eta nekazaritza-jardunbide egokietan aplikatzen da.
  - Barietate autoktonoek protagonismo handiagoa dute hobetutako barietateen aldean.
  - Hazien legerik ez dago (Europako esparrua).

- Elikagaiak baserrietatik saltokietara eramateko, eguzki-ibilgailuak erabiltzen dira.

---

## 2040rako BELDUR DEN EGOERA

### Adostutako ezaugarriak

---

Oro har, 2040rako beldur diren egoerari buruz, taldekideek adierazi dute “egoera horretara iritsiko garela orain arteko bideari eusten badiogu eta ez badugu ezer aldatzen”.

Hona hemen xehetasunak:

- **Nekazaritzako elikagaien industria multinazionalera bideratutako ekoizpena:**
  - Labore bakarreko ustiategi handiak daude, industria multinazionalera bideratuta.
  - Ekoizten den guztia esportatu egiten da.
  - Patentatutako transgenikoetan oinarritutako ekoizpena.
  - Ongarri eta fitosanitarioen gehiegizko erabilera.
  - Nekazari eta abeltzain txikiak desagertu egin dira.
- **Landa-ingurunea galdu egin da:**
  - Dena eraikia dago, mega-azpiegiturekin.
  - Vitoria-Gasteizko landa-ingurunean ez da inor bizi. Hiria da dena.
  - Administrazioak garatu duen hirigintza-plangintza pertsonengandik oso urrunekoa da.
- **Denda txikiak desagertu egin dira:**
  - Landutako produktuak -prozesatuak eta ontziratuak- baino ez daude salgai, saltoki handietan.
  - Elikagaiak saltoki handietan soilik saltzen dira eta enpresa multinazionalak kontrolatzen dute salmenta.
- **Ingurumen-krisia:**
  - Vitoria-Gasteizko ingurumen-ingurunea suntsituta dago.

- Krisialdi hidrikoa sortu da: kutsatutako urak, kontsumitzeko eta ureztatzeko ura falta da, klima-aldaketaren ondorioak nabarmenak dira.
- Lurzorua higatuta dago, eta emankortasuna nabarmen murriztu da.
- Nekazaritzako dibertsitatea galdu da: elikagaien tokiko barietateak desagertu egin dira.

- **Osasun-krisia:**

- Elikadura desegokiak eragindako gaixotasunen gorakada.
- Megaospitale pribatuak baino ez daude.

### 3.2. 2. talde funtzionala: Eraldatzaileak, banatzaileak eta saltzaileak

**Bideratzailea:** *Isabela Velázquez*

---

#### 2040rako ESPERO DEN EGOERA

##### Adostutako ezaugarriak:

---

- **Auzoetako dendak dira nagusi, supermerkatuen aldean.** Denda txiki autonomoetan tokiko produktu fresko eta ekologikoak saltzen dituzte, elikagai osasungarrien eskariari erantzuteko. Supermerkatuek -tokikoak eta txikiak izan arren- edo banatzaile handien produktuak jasotzen dituzten dendek garrantzi txikiagoa dute familien kontsumoan.
- **Erakundeetan (ikastetxeetan, gizarte-zentroetan...) tokiko ekoizpen ekologikoko janaria eskaintzen dute.** Hornidura-ildo horren alde egin da, argi eta garbi, Nekazaritzako Elikagaien Estrategiarekin koherente izanik.
- **Vitoria-Gasteizen hurbileko eraldaketa-industria dago.** Artisau-eraldaketari eta ekoizpenari buruzko araudi egokia dago, Frantzia duela 40 urte abiarazitakoaren ildotik; horri esker, enpresak sortu dira eta bideragarri dira.
- Informazio/komunikazioko teknologia berriei esker, **tokiko ekoizpen ekologikoari buruzko informazioa bateratzeko aplikazioak eta tresnak daude, eta eskaintza eta eskaria uztartzeaz gain,** eskala txikiko merkataritza autonomia, zuzeneko salmenta, etxeko saskiak eta bestelako zirkuitu laburrak ahalbidetzen dituzte. Sare horiek nolabaiteko segurtasuna ematen diote ekoizleari eta merkaturatzearekin lotutako arriskuak murrizten dituzte; arrisku horien beldur zirelako ez zieten nekazariak ekimen berritzaileei. Estrategiarekin sortu den ekoizle-saltzaile-kontsumitzaile sarea egonkorra da,

denborak aurrera egin ahala emaitzak izan ditu. Nekazari berriak dira proposamen berri honen gakoa, komunikazio-teknologietan trebatuagoak dauden heinean.

- **Kontsumitzaile proaktiboak** –elikaduraren kalitatearen gainean sentsibilizatuta eta ahaldunduta daudela- **izan dira** nekazaritzako elikagaien strategiak lortu duen **eraldaketaren eragile**.

## Ekarpen indibidualak:

---

### Ekonomia

- Merkataritza-jarduera ekonomikoen dimentsio-aldaketa.

### Erakundeen adibidea

- Erakundeen menuetan tokiko produktu ekologikoak txertatu dira.
- Esan eta egin, beste erakunde pribatu batzuek ere bide berari heldu diote.
- Kontratazioan ingurumen- eta gizarte-koherentziako irizpideak txertatu dira nekazaritzako elikagaien katearen fase guztietan.

### Hiriko nekazaritza

- Gasteizen baso edo lorategi jangarriak daude, eta saskien bidez daude eskura, lorazainek zaintzen dituzte edo auzo-ekimenei lagatuta.
- Komunitatetik sortutako ekimen eta esperimientuetarako erraztasunak.
- Vitoria ez da hain polita, baina jende gehiagok parte hartzen du.

### Zirkuitu laburrak eta hurbilekoak

- Zuzeneko salmentari, kanal laburrei eta denda txikiei laguntzea, kanal horiek gizarteari eskaintzen dizkioten abantailak aintzat hartuta.

### Ekoizleen elkarreak

- Belaunaldi-aldaketari esker, ekoizleak gehiago elkartu dira eta, orain, koordinatzeaz gain, ekoizpen-katean sinergiak ere ezar ditzakete.
- Prestakuntza eta informazio gehiago eta hobea dago, ekoizleen mesedetan.

## Eraldaketa

- Eraldaketa-aretoak, industria txikia, hiltegiak, eraldaketa-jarduerak artisau-eskalan edo tokiko eskalan.
- Eskala horretarako egokia den araudia dago.

## Denda txikiak

- Erakunde guztiek (EAEk, Aldundiak, Vitoria-Gasteizko Udalak) denda txikien alde egin dute urte hauetan guztietan.
- Tokiko merkataritzari buruz eta kaleko bizitasunari buruz Eusko Jaurlaritzak egindako kanpaina errepikatu egin da.
- Horren ondorioz, denda txiki autonomoek bizirik diraute: kaleak bizi-bizi izaten dira denda horiei esker, eta ekoizle-kontsumitzaile harremana tokiko merkataritzaren bidez lor daiteke.
- Tokiko merkataritzak enplegua sortzen du, eta eginkizun sozialaz gain, elikagaien kalitatea kontrolatzeko eginkizuna ere betetzen du.
- Ekoizle txikien aukera naturala da.
- Kontsumitzaileei bermeak eskaintzen dizkie, produktuei buruz zer pentsatzen duen nori esan baduelako.
- Txikizkariak lehiakorrak dira oraindik produktu freskoei dagokienez. Erosketa bikoitzari eutsi zaio: freskoak denda txikitan, eta produktu ez-galkorrak supermerkatuetan.

## Banaketa handia

- Banatzaile handiei mugak ezarri zaizkie formatu guztietan (hipermerkatuak, supermerkatuak eta auzoko superra...).

## Informazio-sarea

- Informazio-sareen bitartez, ekoizleak merkatariekin eta kontsumitzaileekin harremanetan egoten dira, eta hartara, eskaria eta tokiko eskaintza ekologikoa bat etor daitezke; hortaz, estrategiarekin inplikatu diren agente guztien arriskua murrizten da.



- Nekazaritzako elikagaien kateko agente guztiak biltzen dituzten Estrategiaren foroak martxan daude, etengabe.

### Osasuna, kultura eta kontzientzia

- Herritarrek kontzientzia-maila handiagoa dute, informazio gehiago dute, eta elikagaiak osasunarekin eta kalitatearekin lotutako irizpideen arabera hautatzen dituzte.
- Kontsumitzaileak ahaldundu egin dira, eta jada ez dira pasibo elikagaien kontsumoari dagokionez.
- Gasteizen, jaten diren produktu gehienak tokiko produktu ekologikoak dira.

---

## 2040rako BELDUR DEN EGOERA

### Adostutako ezaugarriak:

---

- Hipermerkatuek porrot egin dutenez, **hiriko kontsumoa supermerkatuetara bideratu da**, auzoko supermerkatuetara, eta hipermerkatu edo supermerkatu handiak baino txikiagoak eta irisgarriagoak diren arren, kate beretik eta baldintza berdinetan hornitzen dira.
- **Erakundeek jada ez dute denda txikia babesten:** Saltoki handien aroa da; orain, elikagaien kontsumoa saltoki handietan egiten da.
- **Elikadura-pobrezia arazo larria da oraindik ere** Vitoria- Gasteizen.
- **Muga eta eragozpen burokratikoak** daude oraindik ere ekimen kolektiboak gauzatzeko.

### Ekarpen indibidualak:

---

#### Ekonomia

- Eskala-ekonomia handiak jaun eta jabe.

#### Denda txikiak

- Auzoko dendak elikagaien banaketa-kate handienak dira, edo banatzaile handien bitartez –adibidez, Covirán– soilik egiten dituzte erosketak, eta



banatzaile horiek ia monopolio moduan bideratzen dute ekoizpen guztiaren erosketak.

- Supermerkatuetan produktu guztiak biltzen dira, eta familiek hor bakarrik egiten dituzte erosketak.

### Osasuna, kultura eta kontzientzia

- Elikagaiak erosteko irizpidea prezioa da oraindik ere, baita iristeko erraztasuna ere.
- Herritar gehienek kalitate txikiko elikagaiak jaten dituzte. Ez dute astirik, ezta aukerarik ere, kalitatea lehenesten duten zirkuitu alternatiboetan sartzeko.

### 3.3. 3. talde funtzionala: Erabiltzaile eta kontsumitzaileak, elkarteetako kide direnak eta ez direnak

**Bideratzailea:** *Zorione Aierbe*

---

### 2040rako ESPERO DEN EGOERA

**Adostutako ezaugarriak:**

---

- **Gasteiztar guztiak elikadura osasungarri eta bidezkoa dute bermatuta, arrazoizko prezioan.**
- **Dieta eta elikadura hobetzearen ondorioz, herritarren osasunak ere hobera egin du** eta zenbait gaixotasun murriztu egin dira.
  - Dietan, zereal eta lekaleek garrantzi handiagoa hartu dute, animalia-jatorriko elikagai gutxiago eta azukre mota guztiak gutxiago kontsumitzen dira.
  - Haurrek eta, batik bat, gazteek jakin badakite elikadura zein garrantzitsua den, eta modu osasungarrian erosteko eta jateko denbora hartzeaz gain, gozatu ere egiten dute.
- **Landatutako azalerak eta lehen sektorean lan egiten duten pertsonen kopuruak gora egin dute.**
  - Gainera, gazteentzat lehen sektorea lanerako aukera bat da; ongi bizi ahal izateko baldintzak eskaintzen ditu.



- Baratze komunitarioak daude auzo guztietan.
  - **Lehengaien kontsumoa murriztu egin da** eta, are gehiago, ez-kontsumoa sustatu eta saritu egiten da.
  - Elikagaien **erosketa eta kontratazio publikoa**: erositako eta/edo kontratatutako janariaren % 100 tokikoa, ekologikoa eta/edo bidezko merkataritzakoa da.
  - **Elikagai-soberakin gutxiago sortzen dira, baita hondakin gutxiago ere**, oro har; eta kudeaketa hobetu egin da.
- 

## 2040rako BELDUR DEN EGOERA

### Adostutako ezaugarriak:

---

- **Gizarteak jada ez du eskatzen elikadura kontziente eta jasangarria.** Gizartea “erdi lo” dago.
- **Eskasia + gosea + desaprobetxamendua.**
  - Tokiko ekoizpena ez dugunez zaindu, babestu eta sustatu, kanpokoaren mende bizi gara eta elikagai osasungarri eta kalitatezkoak eskas ditugu. Horrela, bada, elikagai freskoak luxuzko salgai bihurtu dira eta erosteko ahalmen handiena dutenek baino ez dituzte eskuragarri.
  - Elikatzeko Elikagai Bankuen mende daudenen kopuruak ez du behera egin.
  - Eta aldi berean, desaprobetxatzen jarraitzen dugu.
- **Vitoria-Gasteizko herritarren elikadura-ohiturek okerrera egin dute** eta, horrekin batera, baita **osasunak** ere. Elikadura kontziente eta jasangarriaren alde egin beharrean, aurrez prestatutako produktuen eta zabor-janaren kontsumoak gora egin du.
- **Denda txikien garrantziak behera egin du** eta tokik produktu osasungarri eta jasangarriak erosteko hautua egiten dutenak gutxiengo dira oraindik. Horrek guztiak ekoizleengan eragiten du, eta gero eta gutxiago dira.

- **Ez dugu eraldaketa-ahalmenik bertan;** horregatik, eraldatutako elikagaiak kanpotik erosi behar ditugu.
  - **Nekazaritza-lur gutxi dago,** ez dago egoera onean eta ez da gai hiriaren premiei erantzuteko.
  - **Ura oso kutsatuta dago** eta oso zaila da kalitatezko ura lortzea.
  - **Hondakinen ekoizpenak gora eta gora jarraitzen du,** eta ez dira behar bezala kudeatzen.
  - \*Vitoria-Gasteizen **biztanleriaren gorakada neurrigabea dela-eta,** nekazaritzako elikagaien strategiak eta haren hasierako emaitza onek “porrot egin zuten arrakastaren ondorioz”.
- \*OHARRA: ekarpen hori taldekide batek egin zuen, baina beste ekarpenen kasuan ez bezala, kasu honetan gainerako kideak ez ziren bat etorri.

#### 3.4. 4. talde funtzionala: Politikari eta teknikariak

**Bideratzailea:** *Carlos Verdaguer*

---

#### 2040rako ESPERO DEN EGOERA

##### Adostutako ezaugarriak:

---

- **Auzoetan merkatuen eta tokiko denden aukera handia dago** eta hurbileko produktu ekologikoetan oinarritzen dira.
- **Inguruko landa-herriak herri biziak dira,** herri horietako jarduera ekonomikoa gorantza doa, landa-izaeraz harro daude, eta lurraldeko kide direla eta lurraldeari lotuta daudela sentitzen dute.
- **Kontsumitzailea sentsibilizatuta eta kontzientziatuta dago,** eta horrek eskari jasangarria bermatzen du; elikaduraren kultura berria dago, eta eskaria dibertsifikatua da.
- **Ekoizpena jasangarria, tokikoa, kalitatezkoa eta errentagarria da % 100ean.**
- **Nekazaritza-inguruneak kalitatezko paisaia eskaintzen du,** nekazaritza eta abeltzaintza dibertsifikatuan oinarritzen den aldetik.
- **Eraldaketako tokiko jardueretan gorakada gertatu da.**

- **Ekonomia-sare dibertsifikatua dago** eta elkartegintzako eta kooperatibetako formuletan oinarritzen da.

## Ekarpen indibidualak:

---

### Elikagai-arloko mendetasuna eta independentzia

- Nork bere burua hornitzea: lurralde bakoitzak bere burua hornitzen du
- Tokiko produktuei dagokienez, nork bere burua hornitzearen tasa handia da

### Ingurumena

- Lehen sektorea + dibertsitatea bateragarriak
- Ingurumen-errespetua

### Ekonomia

- Nekazariei bizimodu duina bermatzeko moduko prezioak
- Lehengoan antzeko merkatuak indartzea, prezioak arautuko dituen postu eta guzti

### Paisaia eta lurraldea

- Kalitatezko nekazaritza-paisaia, nekazaritza eta abeltzaintza dibertsifikatuak eta errentagarriak direla
- Kalitatezko nekazaritza-paisaia, nekazaritza jarduera ekonomiko bideragarria izanik (nekazaritza eta abeltzaintza integratuta)

### Landa-herriak

- Herrietan nekazariak daude eta haien jarduera gorantza doa; lurraldearekin lotuta daudela sentitzen dute

### Lehen sektorea

- Nekazaritza gizartean ongi hartutako jarduera da: nekazariak tokiarekin eta ingurunearekin lotuta daude, eta harro daude egiten dutenaz
- Nekazaritza-jarduerarekiko errespetua
- Lehen sektoreak garrantzi handia du, batik bat, modu ekologikoan ekoizten duten kooperatiba-ustategietan oinarrituta



- Kalitatezko ekoizpen jasangarria, ekonomiaren, energiaren eta ingurumenaren aldetik

### Tokiko nekazaritza ekologikoa

- Ekoizpen ekologikoak garrantzi handiagoa du ekoizpen konbentzionalak baino
- Ekoizpena tokikoa eta ekologikoa % 100ean + tokiko barietateak
- Ekoizpena tokikoa eta ekologikoa % 100ean

### Hiriko nekazaritza

- Hiriko nekazaritza orokortua dago bai hiri-periferian, bai hiri-bilbean, eta lagungarri da elikadura osasungarriaren aldeko kultura sendotzeko

### Eraldaketa

- Tokiko produktua bera eraldatzeko jarduerak gora egin dute udalerrian

### Azalera handiak

- Azalera edo saltoki handien gainbehera/desagertzea

### Denda txikiak /auzoko merkatuak

- Auzoko merkatuak indartzea
- Tokiko produktu freskoen merkatuak auzo guztietan
- Tokiko elikagai ekologikoak eskaintzen dituzten askotariko dendak sakabanatuta dituen hiria
- Merkaturatzea: auzoko denda txikiak
- Denda txikiek bizia ematen diete auzoei, eta herritarrek elikagai osasungarriak eta hurbilekoak erraz eskuratzeko moduan dituzte

### Zirkuitu laburrak eta hurbilekoak

- Tokiko banaketa eta zirkuitu laburrak
- Hurbileko eta kalitatezko tokiko merkataritza

- Kontsumoa ekoizpenetik gertu dago fisikoki

### Kontzientziazioa eta eskaria

- Jaten duguna nondik datorren eta nola ekoizten den jakiteko interesa
- Haurrek eta, oro har, herritarrek tokiko produktuak hautatzen dituzte, badakitelako nola ekoizten diren eta ingurumena errespetatzen dutelako
- Gizartea kontzientziatuta dago tokiko produktu ekologikoari dagokionez
- Herritarrek aurrekontu handiagoa bideratzen dute elikagaietara
- Eskari handia: tokiko produktu ekologikoarekiko sentsibilizazioa
- Kontsumitzailea kontzientziatuta dagoenez, eskaria bermatuta dago

### Osasuna, kultura eta kontsumo-ohiturak

- Bizimodu eta elikadura osasungarriaren kultura sendoa garatu da
- Herritarrek haragi gutxiago jaten dute eta barazki-produktu gehiago, freskoak, tokikoak eta ekologikoak, dela etxean, dela jatetxeetan
- Jatetxeek tokiko produktua eskaintzen dute, eta barazkien eskaintza handiagoa da
- Kontsumo-kultura: elikadura osasungarrian oinarritzen da, zikuitu labur eta hurbilekoa duten horniduren bitartez

---

## 2040rako BELDUR DEN EGOERA

### Adostutako ezaugarriak:

---

- **Nekazaritza-lurraldea ia desagertzeaz dago** edo industria-laboretara bideratzen da, eta kasu askotan ez da jangarria. Lurrak abandonatuta daude ez direlako errentagarriak, eta Gasteiz inguruko paisaia alfer-lurra baino ez da.
- **Azalera handiak dira elikagaiez hornitzeko toki bakarra**, eta tokiko merkataritza eta auzoko merkatuak desagertu egin dira, tokiko produktu 'folklorikoak' saltzen dituzten hainbat merkatu izan ezik.
- **Merkaturatzea kate handiek monopolizatuta dago.**

- **Elikadura elikagaiak inportatzearen mende dago erabat**, eta tokiko nekazarien eta/edo abeltzainen kolektiboa desagertu egin da, baita tokiko barietateen haziak ere.

## Ekarpen indibidualak:

---

### Elikagai-arloko mendetasuna eta independentzia

- Elikagaiak inportatzearen mende % 100ean
- Kanpoko elikagaien mende

### Ingurumena

- Klima-aldaketara ez egokitzea → Tokiko barietateak landatzea ezinezkoa
- Uraren eta lursailen kutsadura

### Ekonomia

- Kontsumoa eta ekoizpena beste interes batzuekin oso baldintzatuta daude egungo sisteman

### Paisaia eta lurraldea

- Landa-ingurunea parke tematiko baten barruan dago, turistek paisaia kontsumitzera bideratuta
- Labore-lurrak multinazionalenak dira, eta industria-laboreetara bideratzen dira
- Nekazaritza-lurraldea ia desagertzean dago edo industria-laboreetara bideratzen da, eta kasu askotan ez da jangarria.
- Lurrak abandonatuta daude ez direlako errentagarriak
- Lurzorua erabat artifizializatuta, desagertuta edo abandonatuta dago
- Gasteizen ingurunean alfer-lurrak eta abandonatutako lurrak dira nagusi
- Landa daitekeen lursail produktiboak galdu dira

### Landa-herriak

- Herriak lo-auzo bihurtu dira, eta ez dago nekazari edo abeltzainik

### Lehen sektorea

- Tokiko nekazarien eta/edo abeltzainen kolektiboa desagertu egin da



## Tokiko nekazaritza ekologikoa

- Tokiko barietateen hazia desagertu egin da, eta gauza guztiak Monsanto eta horrelakoetatik hornitzen dira

## Azalera handiak

- Ez dago tokiko merkataritzarik. Azalera handiak dira elikagaiez hornitzeko toki bakarra
- Tokiko produktu 'folklorikoak' saltzen dituzten merkatuak izan badira, baina elikagai-salmenta gehiena azalera handietan gertatzen da

## Denda txikiak /auzoko merkatuak

- Tokiko merkatu eta denda txikiak desagertu dira
- Merkatu librea dela-eta, ezinezkoa da tokiko merkaturatzea, eta auzoko merkatuak eta tokiko produktuak desagertu egin dira

## Zirkuitu laburrak eta hurbilekoak

- Merkaturatzea kate handiek monopolizatuta dago

## Osasuna, kultura eta kontsumo-ohiturak

- Herritarrek aurrez prestatutako jaki asko kontsumitzen dituzte, fresko gutxi, eta proteina asko
- Frutak eta barazkiak dietatik desagertu dira
- Dieta funtsean haragian oinarritzen da, eta horrek presio handia eragiten du baliabideetan
- Hurrek jaki superreraldatuak jaten dituzte ikastetxeetako jantokietan
- Herritar gehienek kalitate txikiko elikagaiak jaten dituzte Erosteko ahalmen handia duen gutxiengo aberats bat baino ez da elikatzen kalitatezko produktuekin, zirkuitu alternatiboetan lortuta

## 4. Bigarren lan-saioaren emaitzak: helburu orokorrak

Lehen saioan Vitoria-Gasteizko nekazaritzako elikagaien sistemaren etorkizuna nolakoa izan daitekeen zehaztu ostean, bigarren saio honetan parte-hartzaileek, gaiaren araberako lantaldeetan banatuta, irudikatutako etorkizuneko egoera horietan gehien espero dituzen alderdiak egia bihurtzeko eta beldur handien eragiten dieten alderdiak ez gauzatzeko ildo nagusiak finkatzeko ahalegin egin behar zuten.

Bestela esateko, fase honetan, 'zer' guztiak identifikatuta zeudela, 'nola' guztiak izan dira aztergai, eta hausnarketa maila orokorrean egin nahi izan da, ildo nagusiak identifikatu ahal izateko; gero, ildo orokor horiekin lan egingo dugu, zehazkiago. Ariketa honetan, esanbidezko erreferentziatzat hartu ziren honen antzeko ezaugarriak dituzten beste prozesu batzuetan -Londres edo Bristoleko estrategiak, esaterako- oinarrizko 'dekalogotzat' finkatutako lan-jarraibideak.

Kasu honetan, zailena zen, hain justu, une oro orokortasun horri eustea; izan ere, logikoa denez, parte-hartzaileek neurri zehatzegiak proposatzeko joera izan zezaketen baina hori saihestu behar zen. Zailtasun hori nabaria da hemen aurkeztuko ditugun zenbait helburutan.

Aurreko saioan bezalaxe, jarraian, talde bakoitzeko kide guztiek adostutako helburuak, alde batetik, eta ekarpen indibidualak, bestetik, bereizita aurkeztuko ditugu; izan ere, ekarpen indibidualak herritarren kezka eta nahien adierazgarri baliotsu ere badira.

### 4.1.1. talde tematikoa (1TT): Nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizpena

**Bideratzailea:** *Iciar Montejo*

#### HELBURU OROKORRAK:

1TT NEKAZARITZAKO ETA ABELTZAINZAKO EKOIZPENA				
GAIA	DESKRIBAPENA	botoak postua		
		Hierarkizazioa egiteko azken osoko bilkuran lortutakoak (ikus 5. kapitulua)		
1	<b>LURRAK ESKURATZEA</b> Ekoizle berriei <b>lurrak lortzeko aukera ematea</b> : lur publikoen eta pribatuen bankuak sortu eta kudeatzea Vitoria-Gasteizko herri guztietan. <ul style="list-style-type: none"> <li>- Onura publikoko lursailetan (luberriak), herri-lurretan (Administrazio Batzarren eta Udalenak), udalarenak diren hiri-lurzoruetan/hiri inguruko lurzoruetan.</li> <li>- Nekazaritzako jardunbide ekologikoekin lotuta.</li> <li>- Hiri inguruko gunetan ere bai.</li> <li>- Administrazio Batzarren ordenantzak egokitu egin behar dira.</li> </ul>	13	3.a	
2	<b>NEKAZARITZAKO EKOLOGIA</b> Vitoria-Gasteizko herri guztietan <b>nekazaritzako jardunbide ekologikoetan jarduten duten baserri, ekoizle eta azalaren</b> (nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoko ekoizpena, irizpide sozialen arabera) <b>kopurua</b> nabarmen handitzea. <ul style="list-style-type: none"> <li>- Nekazaritza-eskolak mobilizatzea eta ikasleak nekazari profesionalekin</li> </ul>	9	4.a exaequo	

		harremanetan jartzea, nekazaritzako jardunbidetik ikas dezaten.	
		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Prestakuntza eta jakintza espezializatua garatzea.</li> </ul>	
<b>3</b>	<b>BASERRI MISTOAK</b>	<p>Vitoria-Gasteizko herrietan lehen zeuden <b>baserri mistoak</b> (nekazaritzakoak eta abeltzaintzakoak) <b>berreskuratzea</b>, eta ekoizpena dibertsifikatzea, baita permakultura ere.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Askotariko elikagaien ekoizpenean aurrera egitea: ortuariak, barazkiak, zerealak, arrautzak, fruta-arbolak, basa-fruituak...; eta lore eta landareak.</li> <li>- Zikloak burutu daitezen ahalbidetzea (animalien hondakinak gai organiko moduan erabiltzen dira finketan); baserriak orekatuagoak eta ingurumena gehiago errespetatzen dutenak.</li> <li>- Sargaiak murriztea.</li> </ul>	<b>2</b>
<b>4</b>	<b>ARAUDIA</b>	<p><b>Araudia</b> (hirigintzako eta beste batzuk) <b>berraztertu eta egokitzea</b>, Vitoria-Gasteizen nekazaritzako eta abeltzaintzako instalazioak ezartzea ahalbidetzeko.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Nekazaritzako lurzorua babesten duen araudia.</li> <li>- Vitoria-Gasteizko herrietan baserriak kokatzeko aukera ematen duen araudia.</li> <li>- Sentsibilizazioa, herrietan herritarrak eta baserriak uztartzea ahalbidetzeko.</li> </ul>	<b>12</b>
			<b>5.a</b> exaequo

## 5 AINTZATESPENA

**Elikagai-ekoizlea duin bihurtzea,** gizartearen ongi ikusitako lanbidetzat hartuta.

1

- Sektorea antolatzeko modu berriak (oporraldiak ere izateko aukerarekin).
- Sektorean jakintzaren transmisioa bermatzea.

### **EKARPEN INDIBIDUALAK:**

- Vitoria-Gasteizen bertan ekoiztutako eta kontsumitutako **elikagaien kalitatea handitzea:**
  - Nutriente gehiago dituzten elikagaiak.
  - Askotariko eta sasoiko elikagaiak.
  - Ingurumen-inpaktu txikiagoko elikagaiak.
  - Ekoizteko modu ekologikoekin ekoiztutako elikagaiak (nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoko ekoizpena, irizpide sozialen arabera).
- Tokian ekoiztutako elikagaiak tokian **merkaturatuko direla bermatzea:** zirkuitu laburrak.

### **Taldeak egindako beste hausnarketa eta ekarpen batzuk:**

Taldearen esanetan, oso garrantzitsua da **hizkuntza egokia eta adostua erabiltzea** Vitoria-Gasteizko Nekazaritzako Elikagaien Estrategian. “Hizkuntzak errealitatea sortzen du” diote taldekideek. Horregatik:

- Baserria aipatzen dute, ez ustiatagia.
- Elikagaiak aipatzen dituzte, ez ekoizpena.

Eta, gainera, taldean bertan **ekoizteko moduen gaineko eztabaida** sortu da. **Eztabaida horretan, aukera eta modalitate oso desberdinak proposatu dituzte:** nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoa, nekazaritzako jardunbide ekologikoak (nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoko ekoizpena, irizpide sozialen arabera), jardunbide jasangarriak (slow food-en bermea dutenak), permakultura eta abar.

## 4.2.2. talde tematikoa (2TT): Eraldaketa, banaketa eta merkaturatzea

**Bideratzailea:** *Isabela Velázquez*

### HELBURU OROKORRAK:

2TT ERALDAKETA, BANAKETA ETA MERKATURATZEA				
1	GAIA	DESKRIBAPENA	botoak postua	
			Hierarkizazioa egiteko azken osoko bilkuran lortutakoak (ikus 5. kapitulua)	
1	SAREAK	Eraldatzaile-banatzaile-saltzaileak konektatuko dituzten <b>ekimenen sareak sustatzea</b> , hainbat formularen bitartez eta lankidetzaz-ikuspegitik begiratuta	14	2.a
2	HIRIGINTZA	<b>Auzoetako hirigintza eta kudeaketa berriz pentsatzea</b> , eraldaketa-instalazio txikiak / merkatua / merkataritza alternatiboa eta malgua txertatzeko	6	
3	INFORMAZIOA	<b>Informazio-sistema bat sortzea</b> Ekoizle – banatzaile – saltzailearen berri emateko, bai eta produktuaren berri emateko ere (trazabilitatea)	0	
4	DENDA TXIKIAK	<b>Denda txikien alde egitea</b>	6	
5	HORNIDURA PUBLIKOA	<b>Hornidura ekologiko eta tokikoaren aldeko konpromiso publikoa</b>	5	

### EKARPEN INDIBIDUALAK:

- Auzoko merkatua indartzea, kalitatezko elikadura-kultura osasungarri eta arduratsu berria sortzeko gune den aldetik.
- Kontaktua eta informazioa bermatzea ekoizle eta kontsumitzaileen artean banaketako eta merkaturatzeko kate osoan.

- Banaketako eta eraldaketako enpresa-ekimen pribatuak sustatzea (prestakuntza, hazitegia, baliabideak...), ekonomia solidarioaren ildotik.
- Zeharkako lankidetzaren ereduak ahalbidetzea, ekoizle - eraldatzaile - kontsumitzaile harremana ahalbidetzeko.
- Elikatzeko dirurik ez dutenei banatzen zaizkien jakietan elikagai fresko, ekologiko eta tokikoak sar daitezen sustatzea.
- Estrategiaren ondorioz sortzen diren jarduera ekonomiko berriak herritarrek landa-eremuan bizitzen jarraitzearekin lotzea.
- Ekoizpen-kontsumo-hondakin zikloa burutzea; horretarako, tokiko eraldaketa-jarduera finkatu behar da, tokiko ekoizpen ekologikoaren mailan.
- Erakundeak eredugarri izatea tokiko kontsumo ekologikoan:
  - Kudeaketa publikoko jantokiak
  - Baliabiderik gabekoentzako elikadura-baleak
  - Herri-bazkariak / politikarien bazkariak
  - Lehiaketak / esleipenak

### Ekintza Planerako ideia eta helburuak

- Ideia eta proposamenen mahaia/foroa:
  - Postontzi irekia eta iraunkorra
  - Eztabaida-foroak
  - Proposamenak
  - Proposamenak planifikatzea eta/edo gauzatzea edo bideratzea
- Elikagaien trazabilitate baloratua lortzeko sistema bat ezartzeari buruzko programa sortzea, zerga-onurak aplikatuta 'balantze sozioambientalaren' arabera
  - Ikuspegi estrategikoa duen hirigintza-araudia:
    - Eraldaketa-instalazio txikiak ezartzea ahalbidetzen duela, hainbesteko mugarik gabe.
    - Baldintza malguak/betegarriak ezartzen dizkiola merkataritzari, hainbat kanaletan: tokiko zuzena, autokontsumoa, auzokoa.
    - Merkatu-erabilerak ahalbidetzen dituela denbora-tarteetan.
- Tokiko denda txikiak, lan duina eskaintzen dutela auzo guztietan.

- Tokiko irizpide jasangarrien arabeko lehiaketa eta erosketa publikoak (baldintza-agiriak). Azpikontratatu beharreko ehuneko baten betebeharra. Erakundearteko protokoloak Eusko Jaurlaritzan (Kontsumoa, Osakidetza...)

### 4.3.3. talde tematikoa (3TT): Elikadura-ohiturak eta kontsumoa

Bideratzailea: Zorione Aierbe

#### HELBURU OROKORRAK:<sup>1</sup>

3TT ELIKADURA-OHITURAK ETA KONTSUMOA				
	GAIA	DESKRIBAPENA	botoak postua	
			Hierarkizazioa egiteko azken osoko bilkuran lortutakoak (ikus 5. kapitulua)	
1	GIZARTE-ESKARIA	Gizarte-eskaria areagotzea, baita tokiko produktu ekologiko, jasangarri eta kalitatezkoen kontsumoa ere.	12	4.a exaequo
2	OHITURA ARDURATSUAK	Informazioa eta prestakuntza eskaintzea elikadurarekin eta kontsumoarekin lotutako ohitura arduratsuak, kontzientek eta jasangarriak ezartzeko.	4	
3	JANGELAK	Ikastetxeetako eta jangela kolektiboetako elikadura hobetzea, tokiko produktu ekologikoen eta hurbilekoen presentzia nabarmen areagotuta.	15	1.a
4	EKIMENAK BULTZATZEA	Administratibotik herritaren ekimenak abiarazteko aukera ematea, ekimen kolektiboak, sareak, elikadurako eta kontsumoko ohitura iraunkorrak/kontzientek/... sustatzeko	1	
5	ELIKADURA-POBREZIA	Elikadura-probrezia desagerraraztea eta xahubidea saihestea.	9	5.a exaequo

<sup>1</sup> Erabili beharreko terminologiaz gain, taldean eztabaida eragin duen beste gai bat **dieta** izan da. Zer dieta hartu behar dugu erreferentziatzat? FAOk proposatzen duena? Dieta mediterranea? Ekialde urruneko medikuntzako dieta? Eta zer ondorio izango ditu hartzen den erabaki horrek?



## **EKARPEN INDIBIDUALAK:**

### **Ikastetxeak eta gune publikoak**

- Ikastetxeetan honako ziklo hau osatzea: landatu, sukaldean prestatu, erosi, kontsumitu, konposta egin.
- Gune publiko guztietan (ikastolak, egoitzak eta abar) elikadura osasungarria eta kalitatezkoa txertatzea.
- Ikastetxe, auzo, kanpaina, topaketa eta ikastaroetan elikadura-ohitura osasungarriari buruzko informazioa eta prestakuntza ematea.
- Gune komunitarioak sortzea modu jasangarrian jaten ikasteko.
- Elikadura eko eta tokikoa izatea zerbitzu publikoetan.
- Gune komunitarioak sortzea landatzearekin, erosketak egitearekin, sukaldean prestatzearekin edo jatearekin lotuta.

### **Ohitura osasungarriak, elikadura osasungarria**

- Herritarrei elikadura-ohitura osasungarriak eta jasangarriak harraraztea.
- Etxeetan kontsumo arduratsuekin eta elikadura osasungarriarekin lotutako ohiturak har daitezen sustatzea.
- Barazki eta fruta fresko gehiago kontsumitzea eta haragi gorri gutxiago.
- Lasai jateko ohitura hartzea, presarik gabe, eguneroko bizimoduan. Slow food.
- Aurrez prestatutako eta/edo prozesatutako produktuak gutxitzea edo ezabatzea dietatik.
- Elikadura-dieta hobetzea; horretarako, barazki ekologiko eta hurbileko gehiago eta haragi eta elaboratu gutxiago jan behar dira.
- Elikaduran zerealak erabil daitezen sustatzea, osasun-iturri diren aldetik.
- Esnekiak, azukreak eta solanazeoak debekatzea.
- Prozesatutako jakiak murriztea, solteko elikagai natural eta ekologikoen erabilera sustatuta.
- Elikagai fresko gehiago eta prozesatutako gutxiago kontsumitzea. Prozesatutako jakien kontsumoa % 50 murriztea.

### **Kontsumo arduratsua, tokikoa eta ekologikoa**

- Tokiko produktu ekologikoak kontsumitzeko ohitura eta kontzientzia handiagoa.

- Kontsumo arduratsuaren alde egiten duten kontsumitzaile-elkarteen, kontsumo-taldeen eta abarren presentzia areagotzea.
- Kontsumitzaileen eskakizun-maila handitzea tokiko produktuak eta kalitatezkoak eskatzeko garaian: kontsumitzaile kontzienteak eta arduratsuak.
- Produktu/ekoizle eko eta tokikoak ezagutzea/eskura izatea.
- Ostalaritza eko eta tokikoa ahalbidetzea eta erraz bereiztea (pintxo-poteak eta abar).
- Tokiko produktu ekologikoa hobeto ezagutzea eta balioestea.
- Kontsumoaren % 70 tokiko produktuak edo hurbileko ekoizleena izatea.
- Etxeko erosketaren ehuneko handi bat denda txikietan (tokiko dendak) egitea.
- Auzoko merkataritza, zuzena, sasoikoa, hurbilekoa eta jasangarria ahalbidetzea.

### Herritarren ekimenak sustatzea

- Administrazioetik erraztasunak ematea herritarren ekimenak abiarazteko.

### Elikadura-pobrezia

- Elikadura-pobrezia desagerraraztea.

### Janaria alferrik xahutzea

- Botatzen den janari kopurua % 80 murriztea.

#### 4.4.4. talde tematikoa (4TT): Ingurumena eta nekazaritzako elikagaien metabolismoa

**Bideratzailea:** *Carlos Verdaguer*

#### HELBURU OROKORRAK:

4TT INGURUMENA ETA NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN METABOLISMOA				
	GAIA	DESKRIBAPENA	botoak postua	
			Hierarkizazioa egiteko azken osoko bilkuran lortutakoak (ikus 5. kapitulua)	
1	BIODIBERTSITATEA	<b>Biodibertsitatea</b> sustatzen duen <b>nekazaritzako elikagaien / nekazaritzaren eta abeltzaintzaren eredua</b>	7	6.a
2	LURZORUA	<b>Lurzorua babestea</b> , funtsezko tresna eta baliabidea den aldetik, narriatu ez dadin (higadura, gehiegizko goldaketa...), plangintzaren eta legeriaren bitartez	9	5.a exaequo
3	URA	<b>Baliabide hidrikoak zentzuz eta adostuta kudeatzea</b> nekazaritzako elikagaien sistemako eragike guztiek	5	
4	HONDAKINAK	<b>Fase guztietan sortzen diren hondakinak murriztea</b> eta hondakin organikoak baliabidetzat berrerabiltzea (konposatzea)	5	
5	ENERGIA	<b>Energia-kontsumoa murriztea fase guztietan</b> , baliabideak optimizatzeko eta emisioak murrizteko	2	
6	IKERKETA	<b>Jakintza hobetzea</b> , nekazaritzako elikagaien kateko fase guztiei dagokienez (ikerketa, hezkuntza, kontzientziazioa)	6	

## EKARPEN INDIBIDUALAK

### Biodibertsitatea eta nekazaritzako eta abeltzaintzako sistema

- Ekoizpen jasangarria, nekazaritza ekologikoa ahalbidetzea eta sustatzea
- Nekazaritzako eta abeltzaintzako eredia biodibertsitatearen kontserbazioarekin bateragarria
- Nekazaritzako sistemaren eta ingurumenaren arteko oreka sustatzea: baso jangarria, heskai biziak.

### Paisaia eta lurraldea

- Nekazaritzako lurraldea babestea, natura-ingurunean txertatuta (biodibertsitatea, paisaia, landaguneak)

### Ura, baliabide hidrikoak

- Ur-kontsumoa optimizatzen duen nekazaritzako eta abeltzaintzako eredia
- Ur-kontsumoa zergapetzea, zentzuzko kontsumoaren maila gainditzen denean kanon bat ezarrita
- Baliabide hidrikoak optimizatzea: eskakizun hidriko txikiko bariedade edo laboreak
- Ura zeharkako modua, zentzuz eta adostuta kudeatzea (erabiltzaile ugari)

### Ingurumen-hezkuntza

- Herritarrek ingurumen-hezkuntza ezin hobea izan dezaten sustatzea

### Jakintza, ikerketa

- Ekoizpen-sistemei buruz ikerketa gehiago egitea, ingurumenari dagokionez ekoizpen jasangarria lortzeko
- Unibertsitatearen ikerketa-potentziala baliatzea prozesua hobetzeko
- Prozesuei eta prozesuak mugatzen dituzten faseei buruzko jakintza handiagoa lortzea, estrategia ezartzean eraginkortasun handiagoa lortzearen
- Diziplina anitzeko taldeak garatzea, helburuak eta zereginak ongi zehaztuta

## Komunikazioa, esperientzia pilotuak

- ‘Adibide pilotuak’ indartzea, ahalbidetzea (‘talde’ kontzientziatuak baliatzea)

## Hondakinak

- Hondakinen kudeaketa hobetzeko kontzientziatzea, heziketa ematea (katearen maila guztietan)
- Ahalik eta hondakin gutxien sortzen duen eredia, batik bat, ontzi eta plastikoei dagokienez
- Elikagai-hondakinak gutxitzeko neurriak ezartzeaz gain, hirigunean sortzen diren hondakin organikoak konposta daitezen lortu behar da epe motzean. Horretarako, aurtean idazten hasiko den Hondakinen Udal Plan berriak koherente izan beharko du nekazaritzako elikagaien strategiaren proposamenarekin. Bestela esateko, Hondakinen Plan horretan bildutako neurrien bitartez, hondakin organikoak jatorrian bertan bildi beharko dira gehiago, dela konpostatzeko instalazioen bitartez, dela konpostatze komunitarioaren bitartez. Konpost hori tokiko ekoizleek erabili ahal izan dezaten.

## Lurzorua

- Lurzorua: gehiegizko goldaketa murriztea (CO<sub>2</sub>-ren emisioak eragiten ditu)
- Lurzorua babestea baliabide den aldetik, narriatu ez dadin (higadura, konpaktazioa, artifizializazioa)
- Lurzoruaren higadura mantsotzeko eta narriatutako eremuak berreskuratzeko neurriak ezartzea

## Sektorearen eragina

- Babestutako naturaguneak eta ur-bazterrak leheneratzea, nekazaritzako eta abeltzaintzako sektorearen eragina saihestuta

## Baliabideak, sargaiak

- Sargaien kontsumoa minimizatzea jakintza hobetuta (ikerketa)
- Ingurumenaren kutsadura saihestea, sargai kimikoak murriztuta

## Zikloak burutzea

- Baliabideen eragikortasuna:

- Ura: minimizatzea eta kanona gehiegizko kontsumoaren kasuan
- Energia: energia ez-fosilak erabiltzea
- Lurzorua: gehiegizko goldaketa saihestea (→ CO<sub>2</sub>)
- Zikloak burutzea: Sortutako hondakinak baliabide bihur daitezke (konposta, energia)

### **Tokiko hazi eta barietateak**

- Tokiko barietateen ekoizpenean oinarritutako eredua, eta labore ugari dituela.
- Tokiko eta egokitutako hazi eta barietateak berreskuratu, erabili eta babestea (landare eta animaliei dagokienez)

### **Energia, zirkuitu laburrak**

- Berotegi-efektuko gasen emisioak murriztuko dituen eredua
  - Sektorean energia-kontsumoa murriztea fase guztietan eta, batik bat, erregai fosilei dagokienez
  - Energia garbia ekoiztea etxebizitzetako eta landa-biltegietako teilatua baliatuta
-

## 5. Azken ondorioak: helburu estrategikoen zerrenda hierarkizatua

Lau talde tematikoek helburu orokorrak finkatu zituzten bigarren lan-saioan, eta horren ondoren, azken osoko bilkuraren eginkizuna zera izan zen, 21 helburuak hierarkizatzeko eta lehenesteko prozesu kolektibo bat gauzatzea, adostasun-maila handiena zuten helburuak nabarmentzeko asmoz.

### 5.1. Erabilitako metodologia

Taldeetako bozeramaileek 21 helburuak aurkeztu zituzten jendaurrean, eta orduan, lehentasunak finkatzeko ariketa hori egiteko, bozketa gurutzatua egin zen, hau da, parte-hartzaile bakoitzari guztira bost boto eman zitzaizkion – koloretako etiketa itsasgarriak ziren– eta boto horiek kudeatzeko bi arau –oso errazak– bete behar zituzten:

- Ezin da norberaren proposamenen alde bozkatu; alegia, norbaitek talde tematiko jakin batean parte hartu badu, talde horretako kideek ezin diete botorik eman talde horretan landu eta adostutako proposamenei.
- Parte-hartzaileak libreki bana ditzake botoak gainerako proposamenen artean, muturreko bi egoera hauen arteko aukera guztiak aintzat hartuta: gehienez ere bost proposamenen aldeko botoa eman dezake, edo bestela, beste muturrean, bost botoak proposamen bakarrari eman diezazkioke.

Jarraian, lehentasunak finkatzeko ariketa horren emaitza aurkeztuko dugu. Emaitzak hobeto interpretatzeko, emaitza lau taldetan banatu dugu, eta lehenengoan ikusten dira argien parte-hartzaileen lehentasunak zeintzuk izan ziren, boto gehien jaso zituzten bost proposamenak izan baitziren.

Hala ere, proposamen batek boto gutxi edo bat ere ez jaso baditu, horrek ez du esan nahi proposamen horrek ez duenik baliorik. Izan ere, proposamen guztien baliorik garrantzitsuena zera da, herritar talde baten lanaren fruitu direla eta, beraz, estrategia lantzeko garaian aintzat hartu beharreko datu garrantzitsuak ere badira.

## 5.2. Boto gehien jaso zituzten bost proposamenak

BOTOAK	GAIA	DESKRIBAPENA	ERREF. <sup>2</sup>	POSTUA
15	JANGELAK	<b>Ikastetxeetako eta jangela kolektiboetako elikadura hobetzea, tokiko produktu ekologikoen eta hurbilekoen presentzia nabarmen areagotuta.</b>	3 3TT	1.a
14	SAREAK	Eraldatzaile-banatzaila-saltzaileak konektatuko dituzten <b>ekimenen sareak sustatzea</b> , hainbat formularen bitartez eta lankidetzaz-ikuspegiatik begiratuta	1 2TT	2.a
13	LURRAK ESKURATZEA	Ekoizle berriei <b>lurrak lortzeko aukera ematea</b> : lur publikoen eta pribatuen bankuak sortu eta kudeatzea Vitoria-Gasteizko herri guztietan. <ul style="list-style-type: none"> <li>- Onura publikoko lursailetan (luberriak), herri-lurretan (Administrazio Batzarren eta Udalenak), udalarenak diren hiri-lurzoruetan/hiri inguruko lurzoruetan.</li> <li>- Nekazaritzako jardunbide ekologikoekin lotuta.</li> <li>- Hiri inguruko guneetan ere bai.</li> <li>- Administrazio Batzarren ordenantzak egokitu egin behar dira.</li> </ul>	1 1TT	3.a
12	ARAUDIA	<b>Araudia</b> (hirigintzako eta beste batzuk) <b>berraztertu eta egokitzea</b> , Vitoria-Gasteizen nekazaritzako eta abeltzaintzako instalazioak ezartzea ahalbidetzeko. <ul style="list-style-type: none"> <li>- Nekazaritzako lurzorua babesten duen araudia.</li> <li>- Vitoria-Gasteizko herrietan baserriak kokatzeko aukera ematen duen araudia.</li> <li>- Sentsibilizazioa, herrietan</li> </ul>	4 1TT	4.a exaequo

<sup>2</sup> Proposamena landu duen talde tematikoari dagokio, baita gai-zerrendaren barruan duen ordenaren zenbakiari ere



		herritarrak eta baserriak uztartzea ahalbidetzeko.		
12	GIZARTE-ESKARIA	<b>Gizarte-eskaria areagotzea</b> , baita tokiko produktu ekologiko, jasangarri eta kalitatezkoen kontsumoa ere	1 3TT	4.a exaequo

### 5.3. Proposamenen bigarren multzoa:

BOTOAK	GAIA	DESKRIBAPENA	ERREF.	POSTUA
9	NEKAZARITZAKO EKOLOGIA	Vitoria-Gasteizko herri guztietan <b>nekazaritzako jardunbide ekologikoetan jarduten duten baserri, ekoizle eta azaleren</b> (nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoko ekoizpena, irizpide sozialen arabera) <b>kopurua nabarmen handitzea</b> . <ul style="list-style-type: none"> <li>- Nekazaritza-eskolak mobilizatzea eta ikasleak nekazari profesionalekin harremanetan jartzea, nekazaritzako jardunbidetik ikas dezaten.</li> <li>- Prestakuntza eta jakintza espezializatua garatzea.</li> </ul>	2 1TT	5.a exaequo
9	ELIKADURA-POBREZIA	<b>Elikadura-probrezia desagerraraztea</b> eta xahubidea saihestea.	5 3TT	5.a exaequo
9	LURZORUA	<b>Lurzorua babestea, funtsezko tresna eta baliabidea den aldetik</b> , narriatu ez dadin (higadura, gehiegizko goldaketa...), plangintzaren eta legeriaren bitartez	2 4TT	5.a exaequo
7	BIODIBERTSITATEA	<b>Biodibertsitatea</b> sustatzen duen <b>nekazaritzako elikagaien / nekazaritzaren eta abeltzaintzaren eredia</b>	1 4TT	6.a

## 5.4.Gainerako proposamenak

### HIRUGARREN MULTZOA

BOTOAK	GAIA	DESKRIBAPENA	ERREF.	POSTUA
6	HIRIGINTZA	<b>Auzoetako hirigintza eta kudeaketa berriz pentsatzea</b> , eraldaketa- instalazio txikiak / merkatua / merkataritza alternatiboa eta malgua txertatzeko	2	2TT
6	DENDA TXIKIAK	<b>Denda txikien alde egitea</b>	4	2TT
6	IKERKETA	Jakintza hobetzea, nekazaritzako elikagaien kateko fase guztiei dagokienez (ikerketa, hezkuntza, kontzientziazioa)	6	4TT
5	HORNIDURA PUBLIKOA	<b>Hornidura ekologiko eta tokikoaren aldeko konpromiso publikoa</b>	5	2TT
5	URA	<b>Baliabide hidrikoak zentzuz eta adostuta kudeatzea</b> nekazaritzako elikagaien sistemako eragike guztiek	3	4TT
5	HONDAKINAK	<b>Fase guztietan sortzen diren hondakinak murriztea</b> eta hondakin organikoak baliabidetzat berrerabiltzea (konposatzea)	4	4TT
4	OHITURA ARDURATSUAK	<b>Informazioa eta prestakuntza eskaintzea</b> elikadurarekin eta kontsumoarekin lotutako ohitura arduratsuak, kontzienteak eta jasangarriak ezartzeko.	2	3TT

## LAUGARREN MULTZOA

2	<b>BASERRI MISTOAK</b>	<p>Vitoria-Gasteizko herrietan lehen zeuden <b>baserri mistoak</b> (nekazaritzakoak eta abeltzaintzakoak) <b>berreskuratzea</b>, eta ekoizpena dibertsifikatzea, baita permakultura ere.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Askotariko elikagaien ekoizpenean aurrera egitea: ortuariak, barazkiak, zerealak, arrautzak, fruta-arbolak, basa-fruituak...; eta lore eta landareak.</li> <li>- Zikloak burutu daitezen ahalbidetzea (animalien hondakinak gai organiko moduan erabiltzen dira finketan); baserriak orekatuagoak eta ingurumena gehiago errespetatzen dutenak.</li> <li>- Sargaiak murriztea.</li> </ul>	3 1TT
2	<b>ENERGIA</b>	<b>Energia-kontsumoa murriztea</b> fase guztietan, baliabideak optimizatzeko eta emisioak murrizteko	5 4TT
1	<b>AINTZATESPENA</b>	<b>Elikagai-ekoizlea duin bihurtzea</b> , gizartean ongi ikusitako lanbidetzat hartuta. <ul style="list-style-type: none"> <li>- Sektorea antolatzeko modu berriak (oporraldiak ere izateko aukerarekin).</li> <li>- Sektorean jakintzaren transmisioa bermatzea.</li> </ul>	5 1TT
1	<b>EKIMENAK BULTZATZEA</b>	<b>Administraziotik herritaren ekimenak abiarazteko aukera ematea</b> , ekimen kolektiboak, sareak, elikadurako eta kontsumoko ohitura iraunkorrek/kontzientek/... sustatzeko	4 3TT
0	<b>INFORMAZIOA</b>	<b>Informazio-sistema bat sortzea</b> Ekoizle - banatzaile - saltzailearen berri emateko, bai eta produktuaren berri emateko ere (trazabilitatea)	3 2TT